

Artxiboko Kontuak

Maite Garamendi

Laugarren ale honekin heldu da KURIKeri agurra esateko ordua. Ezer ez da betiko eta gauza batzuei hobe da amaiera ematea, geldi-geldika amatatzen uztea baino. 2014an atera zen lehen zenbakia eta 2021eko hau da azkena. 7 urtetan, aspaldiko kontuez gain, KURIKek iragana ezagutzeko ezinbesteko tresna diren artxiboetako kontuak ere izan ditu bere orrialdeak betetzeko gai, artxiboak ezagutzera emanez.

Hala eta guztiz ere, artxiboetan lana egiten dugunok, guzti honen bueltan urteak daramatzagunok, bada kezkatzen gaituen kontu bat. Faltan sumatzen duguna da, baten bat dabilen arren, ikertzaille gazterik, haize berririk ez dugula ikusten. Horregatik, animatu nahi ditugu artxiboetara joan daitezen; dena ez baitago sarean. Alderantziz, artxiboak, agiriz, dokumentazioz, beteta daude, beste inon aurkituko ez duzun materialez.

Hori bai, artxiboetan ez uste izan eginda aurkituko duzuenik idatzita ikusi nahi zenuketan historia hori. Esate baterako, Lekeitioko Udal Artxiboan, herriari buruzko bibliografiaz aparte, ez da gordetzen guk nahi duguna, edo beste era batera esanda, nahi genukeen erara ez dago dokumentazioa. Bertan gordetzen diren agiriak Udalak bere ari izanean sortu dituen dokumentuak dira: aktak, dekretuak (hartutako erabakiak), erroldak, kontu liburuak, obra proiektuak... Dokumentuok, izatez, ez dira sortu historia idazteko, Udalaren jardunaren laguntzaile, berri eta berme emateko baizik eta, beraien bidez, herria gobernatu eta administratzeko. Esate baterako, Udal Artxiboan dauden obra proiektuak ez daude han etorkizunean baten batek herrian egin ziren lanak zelakoak izan ziren erakusteko, ez bada ze legeak agintzen duen bezala etxea eraiki edo obra egin delako baino. Eta honek gaurko eta lehenagorako balio du.


Baina dokumentu horiek informazio asko daukate gure iraganaz eta datu interesgarriak ematen dizkigute eta horrek egiten ditu historia idazteko, iragana ezagutzeko baliagarri.

Badakigu ez dela erreza artxibo historikoetan arakatzea; lan nekea da, denbora asko eskatzen duena. Eta ondoren datuak aztertu eta interpretatu behar dira... baina jakizue engantxatu egiten duela, hasi haritik tiratzen eta... ezin utzi.


Ezin amaitu gure herriko historia eta ondarea gero eta hobeto ezagutzeko lanak egin dituzten eta egiten dituztenei eskerrak eman barik: Amaia Apraiz, Mikel Arizaleta, Gonzalo Duo, Fernando Garatea, Iñaki Goiogana, Juan Manuel Gonzalez Cembellín, Iñaki Irigoien, Aitor Iturbe, Iñaki Madariaga, Iñaki Pereda, Celina Ribechini, Ugartetxeatarrak, Valle de Lersunditarrak, Jaione Velilla... Zerrenda luzea da, barkatu ahaztutakoak.

KURIKI agur, baina, hala eta guztiz ere, jarraituko dugulakoan nago beste zer edo zertan. Esaterako, laster hiribilduaren 700. urteurrena dator, aukera paregabea herriaren historian eta ondarean sakontzeko.

Esker bereziak KURIKeroei!!!



Oraintsu erositako 1780ko Nautika eskolako apunteak



Zazpi akatsak